

Komisioen tarifak, baldintzak eta **bezeroei jasanaraz daitezkeen** gastuak

2012.11.02tik indarrean

00. EPIGRAFEA. - KOMISIOEN TARIFAREN BALDINTZA OROKORRAK, MERKATU NAZIONALEAN EUROTAN EGINDAKO ERAGIKETENGATIK BEZEROEI EUROTAN JASANARAZ DAITEZKEEN KOMISIO ETA GASTUAK 1. APLIKAZIO EREMUA:

Tarifa honetan jasotzen diren baldintza eta komisioak gehienekoak dira, eta Bankuak baldintza hobek egin ditzake, bezero bakoitzaren kalitatearen eta kontratazio-bolumenaren arabera.

Gure bezeroek tarifa honetan jasotzen ez diren eta salbuespenez edo era berezian burutzen diren eragiketa edo zerbitzuak eskatzen dituztenean, kasu bakoitzean aplikagarriak zaizkien baldintzak ezarriko dira.

2. GASTUAK:

Espanian, tarifaren epigrafe bakoitzean adierazten diren eragiketei dagokien dokumentazioa bidaltzeko eta jakinarazpenetarako, Garraio, Turismo eta Komunikazioen Ministerioko Posta eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak une oro argitaraturik duen tarifa ofiziala aplikatuko da.

Posta atzerrira bidaltzen den kasuetan, une oro indarrean dauden nazioarteko posta-tarifei dagozkien gastuak kobratuko dira. Ikusi Atzerriko Tarifaren Baldintza Orokorrak atala (50. Epigrafea).

Banaketa/mezularitza sistema pribatuak erabiltzekotan, horiek sortzen dituzten gastuak jasanaraziko dira, betiere bezeroaren eskariz erabiltzen badira. Era berean, bezeroaren kontura izango dira telex, fax, swift, zerga, tinbre eta korrespontsalaren komisio eta gastuak, baldin baleude.

3. BESTE GASTU BATZUK

Fede-emailearen esku-hartzearen, eskrituren eta justifikatutako kanpoko beste edozein kontzepturen gastuak bezeroari jasanaraziko dira oso-osorik.

4. ZERGEN JASANARAZPENA:

Titular bakoitzaren kargura izango dira tarifen aurreikusten diren komisio eta eragiketen kobrantzatik eratorritako uneko zein etorkizuneko zergak.

[1] Dokumentuan helburu horretarako erabilitako iturria CNMVren Intertitzailearen Txokoa izeneko errenta aldakorrari buruzko atala da.